

GIZONAREN BIDEAK

FAMILIAK

1942-an, irailaren 22-an, jaio, Andoain-en.

1952-an, 10 urterekin, Seminariora.

1962-an, Seminarioa uzten du.

Jakintza ekonomikoak ikasten hasten da.

1964-an, gartzela.

1966/68-etan, soldadutza.

1969-an, uztaren 10-ean, heriotza.

SEMINARIOA

“Humanidades” ikasketak (5 urte).

“Filosofia” hiru kurso. Hemen azaltzen da bere adimen sarkontasuna ta ikasketa abstraktuetarako balioa.

“Teologia” ikasketak hasi besterik ez ditu egiten. Gaixorik jartzen da. Biriketatik.

Filosofia ikasten ari zenekoak dira bere lehenengo euskerazko lanak: “Balmes eta Kant”. Garai hartakoak dira, baita bere

“scout” ibilaldiak ere. Ilusio handia izan zuen garai haretan gauza hauetarako.

SEMINARIOA UZTEN DU

1962-an, martxo aldera. Bachiller seigarren urteko rebalida egiten du ekainean, eta udara bukaeran, “Preu”. Jakintza ekonomikoak ikasten hasten da.

Klandestinidateko politikan parte hartzen hasten da. 1964-an, udazken aldera, kartzelatua. EGI-koa dela edo ez urte beteko gartzela ematen diote zigor. Ez du bete beharrik. Gartzelatik pasa ta gero bere politiko pentsamentua forma hartzen hasten da. Garbi ikusten du Euskal politikak industriadzea serioski hartu behar duela; industriadzea ta haren ondorenak: proletargoa, gizarte arazoak, klase borroka etab. Sentidu horretan joango da eboluzionatzen. Garai honetakoak dira hainbat hitzaldi, Euskal Herri guzian zehar Rikardok emanikakoak.

Marxismoa ezagutuko du ta onartuko. Sinismena kolokan jartzen zaio. Marxista giroan aurkitzen ditu lagunak, eta hauekin marxista kutsuko joera batzuetan ibiliko da.

1966-an: soldadutza. Marina tokatzen zaio. Ia bi urte: 21 hilabete pasatzen ditu. Lehenengo zazpiak Ferrol-en. Gainontzekoak San Fernando, Cádiz-en. Garai hau garrantzi handikoa da Rikardoren bizitzan eta pentsaeran.

Pentsatzeko eta gauzak aztertu eta aurnatzeko denbora nahikoa izan zuela dirudi. Hiru joeratan gertatzen da Rikardoren eboluzioa:

- euskaltzaletasuna, abertzaletasuna indar berriz aurkitzea. Ikus “Ezin-etsi”.
- marxismoaren gainditzea edo, marxismoa desmitotegizatze

moduko zerbait. Ikus "Sozialismoa modan dago", "Ezker-tiar berriak", etab.

- Kristau sinismena indar berriz eta esan nahi berri batez aurkitzea. Ikus "Euskaltzaleen Jainkoa hil behar dugu". Rikardo bere azken azken garaietan serioски kristau sutsua izan zen.

Soldadutza garaian, pentsatukoak dira Alfabetatze Kanpaina. Lur editoriala, berak pentsatu zuen bezala, alfabetatzearen osatzaile beharrezko bezala.

BERE BIZITZAKO BESTE DATO BATZUEK

Seminarioa utziaz geroztik, "Pax Christi" ekintzan ibili zen, Santamaria jaunarekin (Karlos Santamaria jauna izan zen bere bizitzan influentziarik handienetakoa izan zuen pertsona. Maixu ta pertsona bezala).

- "Zeruko Argian", aldizkari honen ia hasiera beretik, idatzitako lanak. Urte batean (1965-gn.) artikulo lan batzuen-gatik "Lauaxeta" saria jaso zuen, urte haretako artikulari onen bezala.
- Nahiz eta "jakintza ekonomikoak" ikasten jardun, gehienbat "jakintza politikoak ikasten zituen, soziologia ta filosofia alde batera utzi gabe.
- Euskaltzaindiaren laguntzaile izendatzen dute 1964-gn.
- Euskeraren batasunerako azken garaietan azaldu den joerari bere baiezko osoa eman zion, eta batasun honen eragile izan zen. (Problema hau alfabetatzearekin eta editorialarekin josia ikusten zuen).